

noaia

**Etxegabetzeen aurkako
protokoloa onartu da**

**Usurbilgo kultura,
klik batean**

**Larunbatean,
'Hil arte bizi'
antzezlanak Suteagin**



**Mundu bat dantzan,
mundu hobe baten alde**



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

**Erdi eta goi mailako zikloak
A eta D Ereduak**

www.lhusurbil.com

Administrazioa eta
kudeaketa

Elektronika eta elektronikak


Fabrikazio mekanikak

Energia eta umi
Produzio zerbitzu eta materialak



**Maiatzak 11 eta 18
ATE IREKIAK**

943 36 46 00



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

ASEGURURIK BADUZUE?

**DEITU GURE BULEGORA ZUZENEAN (24H)
IZAPIDEAK AZKARTUKO DITUGU
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta
ERRAUSKETA-LABEEKIN**

ASEGURURIK EZ DUZUE?

**AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
FAMILI BAKOITZERA EGOKITUTAKO ZERBITZUAK
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta ERRAUSKETA-LABEEKIN
USURBILGO BEILATOKIA DOAN
FINANTZAKETA INTERESIK GABE
OINARRIZKO ZERBITZUAK OSO MERKEAK**

Tel: 943.36.21.63

**BALTSAMAZIO, KONTSERBAZIO ETA BERREIRAKETAN
ADITUAK, PARTIKULARRENTZAT ETA EHORZKETA
ENPRENTZAT LAN EGITEN DUGU EUSKAL HERRIAN**

info@funerariagonzalez.es

munalurra 8, Usurbil

SAGARRONDOEN UDAKO KIMAKETA (JARRAIPENA)

**Udako kimaketa eta garai honetako gaitzak eta
gaixotasunak landuko ditugu**

EKAINAK 1, LARUNBATA 09:00h

Potxoenea Kultur Etxea

Salneurria 12€

IZENA EMATEKO:

alkartasuna@usurbil.com

943361114



Albisteak iruditan

San Ixidro egunean, erraldoien konpartsa

Asteazkenean, San Ixidro egunean, erraldoien konpartsa ibiliko da kalejiran. Ekitaldiak goizetik iragarri dira baina erraldoien saioarekin amaituko dira ospakizunak. Gazte eta heldu, adin guztietakoak biltzen dira erraldoien konpartsan. Tartean, argazkian ageri diren bost mutil prestuak. Ezkerretik eskubitara: Jon Arantzazistroke, Jon Mikel Elexpe, Iñigo Arzallus, Manex Irazabal eta Oier Arruti. Maiatzaren 15ean asteazkena, arratsaldeko 18:30ean abiatuko dira gaztetxetik. Erraldoien konpartsakoek, lerro hauen bitartez, zera eskatu nahi diete herritarrei: gaztetxera hurbildu daitezela eta handik kaxkorako bidea egin dezate-lakeurekin.



Asteazkeneko erraldoien konpartsan aterako diren kideetako batzuk.

Laburrean

Ate irekien eguna Lanbide Eskolan

2013-2014 ikasturtean Lanbide Eskolan ikastetxera doazenentzako hitzordu interesgarria. Hurrengo bi larunbatetarako ate irekien eguna antolatu baitute bertan, hau da, maiatzaren 11 eta 18rako, 11:00etan. Informazio gehiago: 943 364 600, eskola@lhusurbil.com edo lhusurbil.com

Afari herrikoia Usurbilgo Gaztetxean

Borondatearen truke, afari herrikoia antolatu dute ostegun honetarako, maiatzaren 9rako Usurbilgo Gaztetxean. Otordua bertako produktuekin osatutakoa izango da. Iluntzeko 20:30etatik aurrera hasiko da eta musika eta sorpresak iragarri dituzte afalosterako.

Maiatzaren 16an, Jose Maria Setienek hitzaldia

Donostiako elizbarrutiaren apezpikua izan zen, eta gaur egun apezpiku emeritua da. "Bakea, Justizia, Egia, etika edo politika?" hitzaldia eskainiko du Sutegin, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Ganbo Iturri Kultur Elkarrekin antolatu du hitzaldia. Sarrera, doan.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.com /// www.noaqua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak




Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.
Aldizkari koordinatorak:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noaqua.com.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaqua.com:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.
Banaketak: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Unai Agirre

Zaharberritzen

Lehenengo igandean, Andatzarra hurbildu ginen, ohitura dugun bezala. Aurreko urteetan mendia txikituta zegoela iruditu zitzaidan, pinua atera berria zela eta, harria, lokatza, berdegunerik ez... Aurten, berriz, pinu ilun hori zegoen tokian gorostia, pagoa, haritzen bat, eta belarraz gain, basoa osatzeko lehen urratsa izaten den zuhaixkak ere berea hartu nahian ikusita, begirada alaitu didate. Agian aurten beste begi batzuekin begiratu dut, zeinek daki. Salda eta pintxoak ere ederki gozatu genituen, eske-

rrak honetan aritu zirenei! Gaia-ri helduta, batzuetan, txikitu behar izaten da berria aterako bada.

Zubietan ere ari dira jo eta su, daukaguna zaharberritu nahian. Errebote plazarentzat beste behin konpontze proiektua, horretan geldituko da, proiektuan. Donostiak ez omen du dirurik (horretarako), eta Donostia erre zuteneko 200. urteurrena ospatzeko, bertan jokatu dira partiduak, lur lokatu eta zulodunean, hezetan hartutako hormak babestuta. Hori bai, heze-

tasun orbanak txurituko omen dituzte, egun horretarako itxura garbitzeko. Oraindik konpondu gabeko beste arazo larri bat badago ere gurean. Eskola txikia, txiki gelditu zen bere garaian, eta 2 prefabrikatu jarri ziren, guretzako hori ez, baizik "txaletak" direnak. Urteetan egindako lanak, dena ondo badoa, bere emaitza ematen hasiko da. Badi-rudi eraikin txiki bat eraiki daitekeela, atxikiriko etxe bezala. Gaizki ohituko ote zaizkigu haurrak, barrakoia utzi eta zementuzko etxean sartuta? Gaztaro-

an, hipoteka ordaindu ezinda ez dezatela egin behintzat atzerako bidea! Bai, nioen bezala, Donostiako Udala lanean ari da oraingoan, Zubietako Eskola aurrera atera nahian. Ikusiko dugu Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailaren erantzuna, baina egungo baldintza kaxkarrak eta haurrez betetako gelak kontutan hartuta, ia legez ezarritako mugaraino, erantzun bakarra behar luke. Baldintza txarrak dituzten prefabrikatu zaharrak kendu, eta eraikin berria altxatzea. Hala bedi!

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | **Unai Agirre** | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

“Pyrenaeus Sarea” aurkeztu dute

Euskal-piriniar harreman historikoetatik hartzen du Pyrenaeus proiektuak bere inspiraziorik nagusia. Ardatz honen inguruan aurkeztu zuen Lasarte-Oriako Ganbo Iturri Kultur Elkartek joan den larunbat goizean Artzabalen, “Pyrenaeus Sarea”. “Euskalerrria eta erkidego piriniarren arteko lurralde eta kultura artikulazioetatik ondoriozta daitezkeen potentzialtasun guztiak landu eta hedatu nahi ditugu”, berri eman zuten. Garrantzizkotzat jotzen dute, “gure herria bere oraina eta geroaren jabe izateko ere, inguru hurbilenarekiko harre-



Artzabalen egin zuten aurkezpen-ekitaldia.

manak behar den bezala saretu eta kudeatzea”. Informazio gehiagorako, web orrialde hau dute: pyrenaeus.org. Honekin batera, II. Auzomintegiak antolatutako dituzte asteotarako.

Ekitaldietako bat, Usurbilen burutuko da. Maiatzaren 16an, Jose Maria Setienek “Pakea, Justizia, Egia. Etika edo politika?” hitzaldia eskainiko du Sutein, 19:00etan.

Batxillerreko Aurrematrikula Lasarte-Usurbil institutuan

Datorren astean amaituko da Lasarte-Usurbil institutuan aurrematrikula egiteko epea. Ohar baten bidez jakinarazi dute: “gogoratu nahi dizuegu Lasarte-Usurbilgo BHI aurrematrikulako orriak aurkezteko epea maiatzaren 14an astearte, amaitzen dela”.

Idazkaritzako ordutegia hauxe da: astelehenetik ostegunera, goizez 9:00etatik 13:30etara eta arratsaldez 15:00etatik 17:00etara.

Ostiraletan, goizeko 9:00etatik 15:00etara.

Zalantzaren bat izanez gero deitu institutura, bi telefono zenbaki hauetako batera: 943 372 852 / 943 372 277.

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero.

Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: maiatzak 17. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 13.

Etxegabetzeen aurkako protokoloa onartu da

Etxegabetzei aurre egiteko bederatzi puntuko protokoloa onartu zuen udalbatzak, azken osoko ohiko bilkuran. Tesuaren alde bozkatu zuten, Bilduk, Aralarrek eta PSE-EEk. Hamaikabat eta EAJ-PNV abstenu ziren. Onartu berri den protokoloan adierazten denez, Udalak "ahalegin guztiak egingo ditu egoera ekonomiko zehatz baten aurrean ohiko etxebizitza duten horren hipoteka ordaindu ezinean dauden pertsonen eskubideak bermatzeko, hau da, irabazi asmoko harreman ekonomiko hutsetan oinarrituriko etxegabetzeen aurka egingo du". Etxegabetzerik gertatuko balitz, Udaletik hauxe da emango luketen erantzuna. Hauek beraz, protokoloa bederatzi puntuak, laburtuta:

1. Instituzioen eta etxegabetzeen aurka ari diren eragileen arteko elkarlana. Beharrezkoa bada, udal batzorde berezi bat antolatzeak aukera.

2. Etxebizitza eskubidea onartua izan dezaten, informazio, laguntza juridikoa eta lehen arreta eskainiko die. Diskrezio osoz. Horretaz arduratuko den zinegotzia eta teknikaria izendatuko dira. Kaltetuen eskura, telefono zenbaki bat eta e-mail bat jarriko dira.

3. Usurbilgo Udalak, herritarren aurka-ko etxegabetze prozedura martxan duen bankuarekin harreman bidea irekiko du, prozedura hori denbora mugagabean bertan behera uztea eskatzeko.

4. Usurbilgo Udalak, kreditu entitateekin duen harreman instituzionala, ekonomikoa eta elkarlana berrikusi egingo ditu etxegabetzeen gaiarekin duten jarreraren arabera:

-Etxegabetzeak gauzatzen dituzten eta egiten ez dituzten entitate finantzarioen arteko lehenasuneko sailkapena egingo du.

-Etxegabetzeak egiten ez dituztenekin orain artean bezala, bere horretan utziko ditu harremanak, eta etxegabetzerik egiten ez duten enti-



Besteak beste, informazioa, laguntza juridikoa eta lehen arreta eskainiko du Udalak.

tate finantzarioak aukeratuko dira udalarekin aurrera begirako harremanetarako.

5. Usurbilgo Udalak, Kutxabank-eko partaide den heinean, bereziki eskatzen dio entitate honi, hala gertatuz gero, **etxegabetzeak eta epaitegietan martxan diren prozedurak bertan behera utzi ditzan denbora mugagabean.**

6. Usurbilgo Udalak, herritarren jakinaren gainean jarriko du etxegabetzeen gaiaren aurrean Banku, Kutxa edo Kooperatiba bakoitzak duen jarrera.

7. Epaitegietatik bideratutako prozedurak gauzatzeari uko egiten dieten udal langileak babestuko ditu Udalak.

8. Ohiko etxebizitzarik gabe geratu diren herritarrei premiazko irtenbidea emateko garaian, **alokairu soziala hartuko du erreferentzia nagusizat:**

-Etxebizitza eskumena duten erkidego eta foru entitate publikoekin (Etxebide eta Vinsa) elkarlana bultzatuko du.

-Hainbat etxebizitza hutsik dituzten banku eta higiezin enpresei ardura eskatuko die.

9. Etxegabetzeen aurrean dei daitezkeen mobilizazioekin bat egingo du Udalak.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, urtebetez luzatua

Berritzea edo luzatzea egokitzen zen, eta azkenean bigarren aukeraren alde egin du udalbatzak. 2008-2012 urte arterako onartua zegoen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari (EBPN) buruz ari gara. Urtero berri beharra izaten da. "Urtero plan estrategikoari lotutako kudeaketa plana egin izan da. Udal aurrekontuetan ere Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiko ekintzak bideratzeko behar besteko dirua jarri izan da", dio Udalak.

2011ko ekainaren 28an berritu zen azken aldiz. 2013an gaude jada, eta Eusko Jaur-laritzak plan estrategikoa berritu edo luzatu beharra zegoela jakinarazi dio Usurbilgo Udalari, "baldin eta diru-laguntza deialdian parte hartu nahi bada". Berritu ordez, azken lau urteotako plana urtebetez luzatzea proposatu zuen gobernu taldeak apirilaren 30ean burutu zen osoko ohiko bilkuran. Zenbait aldagaketa egin beharrak baitituzte aipatu planean, eta honen bestez, aurrean aldaketa horiek txertatu eta horiek egin ostean, euskarari loturiko plan estrategikoa berritu asmo du Bilduk. Gainera, "2013an Plan Nagusiari lotutako Kudeaketa Plana bideratzeko konpromisoa" hartzen du Udalak. Proposamena aho batez onartu zuen udalbatzak.

Helburu estrategikoak

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak hiru helburu estrategiko ditu. Honako hauek:

1. Euskara, belaunaldiz belaunaldi eta etenik gabe transmititzea, eskola, euskaltegi eta familia bidez katea eten ez dadin.

2. Euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolaz kanpoko erabilera eremuetara zabaltzea, teknologia berrietara, aisialdira, kirolera, udaletxera, erlijio-saioetara, enpresetara...

3. Hizkuntza etengabe elikatzea, komunikabide, liburu, publizitate eta kultur gintzaren bidez usurbildarrek eroso, erraz eta kalitatez egin dezaten euskaraz.

LATAILLADE

ITURGINTZA
 Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak
 eta mantenimendua
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Baserriko haragia
 •Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak
 Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

Familiarentzat, baratze ekologikoaren laborantzarako hastapen ikastaroa

Usurbiltzen Taldeak ikastaro hau iragarri du ekainerako: "Familiarentzako baratze ekologikoaren laborantzarako hastapen ikastaroa". Hauek izango dira landuko diren gaiak: Hedadura, Lursailaren prestaketa, Laboreak eta garai egokiak, Plan-gintza, Hazitegiak, Ereintza, Laboreen zaintza, Tratamendu naturalak, Elkarketak eta erro-tazioa.

Usurbiltzenetik aditzera eman dutenez, "ikastaroa praktikoa izango da eta baratze ekologiko batean arituko gara, beraz arropa eta oinetako egokiak eraman itzazue. Hamaiketa



Ekaineko lehen bi larunbatetan egingo da ikastaroa.

takoa eramatea gomendatzen da, sagardo ekologikoa bertako ekoizleek jarriko dute".

- Norentzat: familiei zuzendua.
- Noiz: Ekainaren 1ean eta 8an.

- Ordutegia: 9:30-13:30.
- Prezioa: 20 euro.
- Plaza mugatuak, gehienez 12 lagun.
- Izen-ematea: 646 449 358 / usurbiltzen@gmail.com

Presoen eskubideen aldeko mobilizazio ezberdinak iragarri dira datorren asterako

Maiatzaren 18 eta 19ko astebururako euskal preso eta iheslari politiko- en eskubideen aldeko mobilizazioak deitu ditu Herrirak. Batetik, Euskal Herriko beste hainbat plazetan bezala, hilaren 18an. Herritarrei Herriraren koloreko, hau da, kolore urdineko kamisetekin agertzera deitzen zaie Dena plazara, eguerdian. Sagardo Egunerako, Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak ekitaldia deitu du 13:00etan Mikel Laboa plazan jarriko duten karpa gunean.

Sagardo Eguneke ekitaldia ezberdina izango da aurtan. Aditzera eman dutenez, "13:00etan gure senide preso, iheslari eta deportatu- en eskubideen aldeko elkarretaratzea eta txotx berezia egingo dugu". Frontoi atzean, alegia, Mikel Laboa plazan elkartuko dira.



Sagardo Egunean txotx berezia iragarri dute.

Ekainaren 2an, Lasterbidean

Azkenik, ekainaren 2an Oiztzen ospatuko den Lasterbidean ekime- nean parte hartzeko gonbita luzatzen zaie usurbildarrei. Etxerat-ek antolatuta du, Euskal Herri mailako pre- soen eskubideen aldeko kirol ekimen hau. "Presoak laster bidean izatea

espero dugulako, laster etxera herrira bidean alegia, usurbildar- rrek ere lasterketa honetan parte hartzera deitzen ditugu", luzatu dute gonbita.

Informazio gehiago web orrial- de honetan eskura daiteke: www.lasterbidean.com

Artikulu berri bat, hondakinei loturiko udal ordenantzaz

Aurrerantzean, 38 ez, 39 artikulua izango ditu hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantzak. Arti- kulu berri bat txertatzea onartu zuen udalbatzak, apirilaren 30eko oso- ko bilkuran, Bildu eta Aralarren alde- ko bozkekin. Gainerako udal tal- deek abstentziora jo zuten. 16. zenbakia izango duen artikulua berri honek, "edukiontzia biltegiek edo hondakin gelek eraikinean izan behar luketen kokapen zehatza, bil- tegi kopurua, hala nola beste zen- bait ezaugarri (eraikigarritasuna- ren zenbaketa, neurri eta baldin- tza zehatzak)" zehazten ditu.

Aldaketa honi, uztailaren 27ko osoko bilkuran eman zitzaion hasie- rako onespena. Gerora erreklama- zioak aurkezteko egon den epea- ren baitan, bi alegazio aurkeztu dira. Bat ez da onartu. Eta bestea, par- tzialki aintzakotzat hartzea eraba- ki da. Gehiengo osoz, hondakinei loturiko udal ordenantzaz 16. arti- kuluak izango dena txertatzea behin betiko onartu zen apirilaren 30ean. "Aldaketaren ondorioz, indarrean dagoen udal ordenantzaren 16tik 38ra doazen artikulua, 17tik 39ra zenbatuko lirake hurrenez hurren", Usurbilgo Udaletik zehaz- ten dutenez.

Blog berria du Sortu Usurbilek

Sortu Usurbilek atari berria estre- inatu du. "Hemendik aurrera ber- tan aurkituko ditugu Sortu kale- ratzen dituen herriko berriak", berri eman dute. Usurbileginez.com web orrian lotura jarri dute. Bestela, hauxe duzue Sortu Usurbilen blog berri- ko eta sare sozialetako helbideak:

- Bloga: sortu.net/eu/herrialdeak/-gipuzkoa/usurbil
- Facebook: facebook.com/usurbilsortu
- Twitter: twitter.com/usurbilsortu
- E-posta: usurbilsortu@gmail.com

Ekitaldi ugari iragarri dira Sagardo Egunaren bueltan

Usurbildarrentzat hain berezia den urteko hitzordua ate joka dugu. XXII. Sagardo Eguna ospatuko da, maiatzaren 19an. Astebete barru beraz. Aurten, "1. Sagastiak Loretan" ospakizun sortaren barruan dator, Sagardo Egunaren Lagunak taldekoek antolatu duten jaialdia.

Ohi bezala, irekiera ekitaldiarekin abiatuko da Sagardo Eguna. Hortik aurrera, baserriko, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko eta labeldun edariak dastatzeko osteratxoa egin ahal izango da bazkal ordura arte, frontoi, Dema eta Askatasuna plazan. Musikariek ez da faltako txaranga edota trikitilariarekin. Arratsaldean erromeria, Fun&Go taldearekin.

ERAKUSKETA ETA BASOEN SALMENTA

Sagardo Eguneako jaiak Kaxko osoa hartuko du bere baitan. Aurten, baita Sutegi ere. "Usurbilgo baserrietako dolareen argazki erakusketa" bisitatzeke aukera izango da kultur etxeko aretoan, maiatzaren 16tik 19ra. Erakusketa zabalik dagoen tartean gainera, Sagardo Eguneako aurreko edizioetako edalontziak ere salgai jarriko dituzte antolatzaileek, 2 eurotan. Sagardo Egun guztietako edalontzien bilduma osoa ere erosi ahal izango da, 40 euroren truke.

■ Maiatzak 16-19. Ostegunetik igandera, Usurbilgo baserrietako dolareen argazki erakusketa Sutegin. Maiatzak 16-17, 18:00-20:00. Maiatzak 18-19, 10:00-14:00.

SAGARDO EGUNEAN, KARPA MIKEL LABOAN

Aurreko urteetan, Sagardo Egunez Mikel Laboa plazan kokatu izan den txosna aurre-



"Usurbilgo baserrietako dolareen argazki erakusketa" irekiko da maiatzaren 16an Sutegin. Aurreko edizioetako basoak salgai izango dira erakusketa egunetan.

ko gunea indartu asmo dute aurten, Ernai gazte antolakundeak eta Herrirak. Karpak jarriko dituzte maiatzaren 19an, eta bertan, goizeko 11:00etan hasita, egun osoan zehar ekitaldi desberdinak izango dira. Edatekoaz gain jatekoa aurten, presoen eskubideen aldeko ekitaldia eguerdian, musika emanaldiak arratsalde eta iluntze partean....

■ XXXII. Sagardo Eguna: Goiz guztian zehar, txaranga eta trikitilariak kaleetan zehar.

■ 11:30 Irekiera. Baserriko, Labeleko eta Gipuzkoako Elkarteko sagardoa dastatzeko aukera. Honetaz gain, pintxo aukera zabala.

■ Goiz guztian, txaranga eta trikitilariak kaleetan zehar.

■ 17:00 Erromeria Fun&Go taldearekin.

■ Arratsaldean ere, txaranga.

■ 11:00etatik aurrera, Herrirak eta Ernaik antolaturiko karpa gunea Mikel Laboa plazan: jan edana, musika, presoen eskubideen aldeko ekitaldia...

■ Egun osoz "Usurbilgo baserrietako dolareen argazkiak" erausketa Sutegin.

BEZPERAN, SARIAAUNDI BASERRIRA BISITA GIDATUA

Sagardo Egunaren bezperan, Aginagako Sariaaundi baserrira bisita gidatua antolatu da. Berreskuratutako XVI. mende-ko dolare-baserria da Sariaaundi. Bertako berri emango dute, Jakoba Errekondo paisajistak eta Luis Alberdi arkitektoak. 17:00etan hasiko da bisita gidatua. Maiatzaren 17ra arte, telefonoz deitu NOAUA!ra (943 360 321), bisita egitera zatozela jakinarazteko. Hartara, bisita osteko lunch-a neurrikoa izan dadin.

BAZKARIA SAN IXIDRO EGUNEAN

"1. Sagastiak Loretan" ospakizunaren baitan txertatu dute aurtengo San Ixidro eguna. Hauxe egitaraua:

■ 10:30 Meza Salvatore Elizan. Ondoren, hamaiketako eta herri kirolak frontoian.

■ 14:30 Bazkaria Artzabalen. Txartelak Alkartasuna Kooperatibari salgai, maiatzaren 11ra arte.

■ 18:30 Herriko erraldoi konpartsarekin pintxo poteoa.

Auzolan Elkartek aurkezturiko mozioa

"Krisiaren aurrean zer egin?" ize-neko jardunaldiak antolatu zituen Auzolan Elkartek, joan den urtarriaren 17 eta 18rako. Hitzorduon baitan, herritar eta eragileen proposamenak bildu nahi zituzten. Mozio moduan jaso eta udaletxean erregistratuzuten, aurreko aste-ko osoko ohiko bilkuran aztertua izan zedin. Auzolan Elkartetik krisiari aurre egiteko gogoeta prozesu bat irekitzea eskatzen dute. Gobernu taldeak apirilaren 30eko saioan, ontzat eman zuen Auzolan Elkartekoek aurkezturiko testua, azterlanerako bideragarritzat jozuten. "Materiala bada hausnartzeko", adierazi zuen alkateak. Gai honek eztabaidarako aukera ematen duela gaineratu zuen, inork hala proposatuko balu, Batzordean tratatu litekeela zioen.

Bi kreditu aldaketa

2012ko ekitaldia likidatzerakoan, "diruzaintza gerakina negatiboa atera denez, ezin izan dira 2012. urtetik datozen partidak txertatu. Aurreikusitako gastuak 2013. urteko aurrekontuan sartu ahal izateko, kreditu transferentzia egitea proposatzen da". 3. kreditu aldaketa espedienteak onartzea alegia. Planteamendu hau, apirilaren 30ean burutu zen osoko ohiko bilkuran egin zuen Bilduk. Eta honez gain, arrazoi berdinegatik, iazko diruzaintza gerakina negatiboa izategatik baita, "2013. urteko aurrekontua kantitate horretan gutxitzea proposatu da". Hauxe da, joan den aste-ko osoko bilkuran, gobernu taldetik planteatu zuten 4. kreditu aldaketa. Zuhurtziaz jokatu nahi izan dute erabakiok mahai gaine-
an jartzerakoan, azken osoko bilkuran Bildutik ziotenez. Kreditu aldaketa proposamen batean zein bestearen aurrean, udal ordezkarien bozketako emaitza bera izan zen. Gehiengo osoz onartu ziren bi kreditu aldaketak, Bildu eta Aralarren babesarekin. Hamaikabatek aurka bozkatu zuen. EAJ-PNV eta PSE-EE abstenitu ziren.

Mikel Erguin, Mundumobeko koreografoa: “Birziklatzean pentsatuta prestatu dut dantza”

Mundumobekimeneko abestiaren errit-mora dantzan hasiak dira gipuzkoar-
rak. Orendaingoak izan ziren lehenak
maiatzaren 4an. Ibarran ere burutu dute saioa.
Larunbat honetan, maiatzaren 11n, hona hel-
duko da Mundumob Usurbil Zero Zabor talde-
koen eskutik. 18:00etan frontoian grabatuko da,
"Eman hartu nahi duzun mundua" lemapean.
Jai giroan gainera; azken entsegu saio, zizka miz-
ka eta DJ baten emanaldiarekin.

Zubietako 2011ko flashmob ekimeneko kore-
ografia sortu zuen Mikel Erguinek. Baita larun-
bat honetako Mundumob ekimenekoa ere. Due-
la bi urteko magia errepikatzeraz animatzen ditu
herritarrak.



Herriz herri grabatuko da Mundumob. Irudian Mikel Erguin, Orendainen dantza irakasten.

Nola diseinatu duzu koreografia hau?

Mikel Erguin. Koreografia birziklatzean pen-
tsatuta prestatu dut. Erraza baina ikusgarria da.
Birziklatzea isladatu nahi izan dut zenbait mugi-
mendurekin. Hasieran lurrean eskuak batetik bes-
tera mugitzearekin norberaren konpromisua
adierazi nahi izan dut, materialak leku batetik
bestera eramatea. Errotaren mugimenduarekin
ere antzekoa. Koktelera izenez ezagutzen dugun
pausuekin birziklatzearen fasea...

Mundu bola bat izango da ekimeneko iru- dia. Dantzan ere presente izango dute herri- tarrek?

M. E. Koreografian ez dago mundu bola irudi-
katuta. Mundu bolak herritarrak daudela adie-
razten du eta dantzan herritarrak presente dau-
de. Koreografian zehar eskuak zabaltzen ditu-
gunean hor dago mundua. Herritarrek osatzen
dugun mundua.

Zubietako flashmobeko zenbait pauso ere berreskuratu dituzue tartean.

M. E. Antzeko pausu batzuk baditu, aurrekoak
ezagunak egiten zaizkigulako. Eskubira, ezke-
rrera, atzera eta aurrera. Baina ez da berdina.
Ezberdintasunak egon badaude, saltoak, birzi-

MIKEL ERGUIN, KOREOGRAFOA

*“Zubietako flash moba magikoa
izan zen. Sorpresa izan zen
2.000 herritar dantzan jartzea”*

klatzeko materialekin dantzatzeko asmoa...

Dantza egitea kosta egiten omen zaigu asko- tan. Baina ez zirudien hori hala zenik, due- la bi urte Zubietako flashmobean.

M. E. Gero eta gutxiago kostatzen zaigu. 2011n
ez genekien zer zen flash moba. Orduko presta-
keta asko igertzen da orain. Oraingoan erraza-
go hartzen dute, arratsalde batean.

Zubietako flash moba zoragarria, majia izu-
garria, jende guztiaren konpromisua, olatuaren
indarra, zero zaborren lana... Hori dena koreo-
grafian ikusi zen. Magikoa, oso magikoa izan
zen. Sorpresa izan zen 2000 herritar dantzan
jartzea. Magikoa.

Eta aurtengoari begira, herritarrek erraz ika- si al ditzakete Mundumobeko pausoak?

M. E. Bai. Hiru zati ditu, bat ikasi eta besteak

erraz hartzen dira, aldaketa txiki batzuk beste-
rik ez dituzte. Erraz ikasi eta disfrutatzeko, goza-
tzeko, ... denbora dago.

Herrietan antolatzen ari diren entseguetan edo
zero zabor taldeko web orrian tutoriala jarrai-
tuz ikas daiteke.

Zer esan maiatzaren 11n, usurbildarrak dan- tzara animatzeko?

M. E. Usurbildarrei zer esan? Jarraitzeko zare-
ten bezalakoak izaten, kriston indarra daukazue,
Dema plaza betetzeko, duela bi urteko magia
errepikatze eta zaila izango bada ere mejo-
ratzeko alaitasunez eta borobiltzeko. Aupa Usur-
bil! Hoi den/k mundu guztiari! Muxu handia.

JAI GIROAN GRABATUKO DA Maiatzak 10, ostirala

■ 19:00 Entsegu frontoian.

Maiatzak 11, larunbata

■ Dema Plazan. 17:00-18:00, entsegu. 18:00etan,
grabaketa.

■ Ondoren, Zizka mizkak, DJ, mundu bolarekin
argazkia ateratzeko aukera.

■ Tutoriala ikusteko: zerozabor.org

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

Errazkin S.L.
igeltzeritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Andoni Errazkin
Xukin
igeltzeritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

garraio publikoa Gipuzkoa



Pertsona guztien
mesederako tarifa
bateratuak.



Garraio-aldaketak
baldintza onetan.



Erabileraren arabera
deskontuak.



Talde bereziei
zuzendutako hobariak.

Mugirekin, zu irabazle

Gipuzkoako garraio publikoa bateratzen
duen sistema berria duzu.



Gipuzkoako Garraioak
Transporte Público de Gipuzkoa
Transportes de Gipuzkoa



943 000 117

www.mugipuzkoa.com

Beti dago lehen aldi bat edozertarako...

Honetarako, hartarako... badakizu.
Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai;
erosketa supermerkatuara joan gabe egiteko,
adibidez. Iritsi zaizu EROSKI online
estreinatzeko unea.
Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

10€

oparituko dizkizugu online egindako
lehendabiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik
gorako eskaeratarako balio du.

eroski.es

EROSKI online
zurekin

Harrera ona izan du Mugi txartelak

DESKONTU HANDIAK ESKAINTZEN DIZKIE GARRAIO PUBLIKOA GEHIEN ERABILTZEN DUTENEI

Mugi txartel bateratuarekin, Gipuzkoako autobus publiko guztietan eta Euskotreneko trenetan bidaiatzeko aukera dute herritarrek. Renfeko trenetan erabil liteke, baina deskonturik gabe. “Garraio publikoa gehien erabiltzen dutenak eta errenta txikienak dituztenak sarituko ditu txartelak”, hala dio Larraitx Ugarte Gipuzkoako Foru Aldundiko Azpiegiturak eta Mugikortasun diputatuak.

Bada hilabete baino gehiago Mugi tarifa-sistema bateratua martxan jarri zela Gipuzkoako garraio publikoan. Pozik orain arte izan duen bila-kaerarekin?

Larraitx Ugarte. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan oso pozik gaude proiektuarekin, Gipuzkoako garraio publikoko sare lehiakorra, bateratua, bidezkoa eta iraunkorren aldeko apustu handia delako.

Noski, proiektua diseinatzea eta kudeatzea ez da erraza izan, eta lan handia egin behar izan dugu goitik behera aldatu behar izan dugulako Gipuzkoako garraio publikoaren sistema.

Zer nolako harrera egin diote herritarrek Mugi sistemari?

L. U. Gure iritziz, herritarrek begi onez ikusi dute Mugi sistema berria; harrera ona egin diote, gehienbat, tarifa-sistema berriak eskaintzen dizkien onurengatik. Mugi sistema garraio guztietarako euskarri bakarretik haratago doa, izan ere, deskontu handiak eskaintzen dizkie garraio publikoa gehien erabiltzen dutenei, garraiobide ezberdinetan egindako bidaiek kostu berdina izan dezatela bermatzen du, garraiatzaile be-



Larraitx Ugarte, Gipuzkoako Foru Aldundiko Azpiegiturak eta Mugikortasun diputatuak eman dizkigu txartelaren inguruko xehetasunak.

LARRAITX UGARTE

“Gipuzkoako garraio publikoa gero eta kalitate handiagokoa da”

rarekin egindako garraio-aldaketak doakoak dira eta deskontuak eskaintzen ditu ezberdinekin egindakoetan, eta hobariak eskaintzen dizkie talderen bate-

ko erabiltzaileei baldintza oso onuragarrietan bidaia dezaten. Horri guztiari esker, Gipuzkoako garraio publikoa gero eta lehiakorragoa da eta kalitate handiagokoa, eta herritarrek asko eskertzen dute hori.

Mugi sistema ezartzeko prozesuan, zer nabarmenduko zenuke?

L. U. Dudarik gabe, proiektu

honetan parte hartu dugun guztion lan gogorra. Gainera, ahalegin handia egin dugu herritarrei arreta emateko. Horrela, 80.000 kontsulta baino gehiago kudeatu dira erabiltzaileei arreta emateko zentroetan, eta 35.000 txartel berri baino gehiago inprimatu eta bidali dira, horietako 15.396 taldekoak eta 12.227 arruntak. Lan horri esker, dagoeneko 180.000 txartel baino gehiago erabili dira Mugi sistema berrian, horiek guztiak tarifa-sistema bateratuaren nobedade eta onurekin.

Mugi proiektua talde-lanaren emaitza izan da, beraz.

L. U. Zalantzarik gabe, Mugi asmo handiko proiektua da, handiegia bakarrik burutu ahal izateko. Zentzu horretan, erakundeek (Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundia eta Udalak) eta garraiatzaileen lankidetzak ezin bestekoa izan da.

19.770 txartel izapidetu ziren lehen hilabetean

Zergatik ez daude Gipuzkoako garraio guztiak Mugi sisteman?
Larraitx Ugarte. Agintaritzak lan egin du zerbitzu publiko guztiak Mugi sistema berrian egon daitezkeen, baina oraindik badira hainbat udal zerbitzu sisteman parte hartzen ez dutenak, ez sistemari egotz dakizkikeen arrazoiengatik, baizik eta arrazoi instituzional edota teknikoengatik.


Mugi sistema ezartzeko prozesua luzea eta zaila izan da. Zeintzuk izan dira bidean zailtasun nagusienak?

L. U. Zailtasun nagusia aldaketa bera izan da; aurreikusi ezin diren hainbat gairi aurre egin behar izan dugu. Mugi ezartzeko prozesua behar bezala burutu arren, bai herritarrek

bai eragindako eragileek denbora behar izan dute sistema berriari egokitzeko. Epe horretan, aldez aurretik aurreikusi ezin daitekeen beharra sortu zen herritarren aldetik: informazio-eskaera masiboa. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan berehala antzeman genuen behar hori, eta horregatik, hasiera batean informazioa emateko aurreikusitako zerbitzuak indartzea erabaki genuen.

Horrela, informazio-gune ibiltariak jarri genituen Gipuzkoako hainbat herritan, herritarren kezak eta zalantzak argitzeko. Gune ibiltari horietan 20.000 lagun baino gehiagoren galderak erantzun dira, eta 6.000 eskaeratik gora izapidetu.

Aldi berean, indartu egin genituen Mugi sistemaren informazioa



Mugi abiarazteko, erabiltzaileen iritzia ere kontuan hartu zen.

emateko gainerako bideak, hala nola, Bezeroei Arreta Emateko Bulegoak, 943 000 117 telefonoa eta www.mugipuzkoa.com web orriaren bidez egindako kontsultak.

Azkenik, Mugi sistemako sareko saltokietan egindako lana eta ahalegina azpimarratu nahiko nuke. Izan ere, 19.770 txartel izapidetu dituzte saltzaileek eta herritarrei informazioa eskaini diete, esku zabaltasun osoz.

Usurbilgo Kultura, klik batean eskura

KULTURA.USURBIL.NET WEB ORRIA JARRI DU MARTXAN UDALAK, ELKARTEEKIN ELKARLANEAN

Estreinatu berri dugun hilabete hau, ohi bezala ekitaldiz josia datorkigu. Maiatza, herrian ekitaldi gehien burutzen den hilabetea izango da ziur. Eta 2013koa ez da salbuespena izango. Ekimen eskaintza zabal horretan ez galtzeko, noiz, non, zer dagoen ezagutzeko tresna berri bat eskura dugu jada. Gogoan hartu: <http://kultura.usurbil.net/>

Web orrialde berri honetara heltzeko beste bide bat ere bada.

Usurbilgo Udaren atarian sartu, www.usurbil.net/ helbidean. Bertan aurkituko duzue "Usurbil Kultura" web gunerako lotura. Web orri berria, Jon Aizpuru herritarrak (Abaraskako langilea) eta Kultura Aholku Batzordeko kideak diseinatu du. Kultura Aholku Batzordean, zehazkiago esanda, 2011n burutu zen kultur alorreko parte hartze prozesuan du jatorria, martxan den web orrialde berri honek. Udala, eta herri eragileak bildu zituen saio haietatik urteotarako plan estrategiko bat osatu zen. Bertan, hainbat lan ildo jasotzen ziren; horien artean, herriko taldeen autogestioa, koordinazioa, komunikazioa bultzatu beharra, Usurbil kultur herri gisa garatu beharra... Besteak beste, behar hauei erantzungo die jada funtzionamenduan den "Kultura Usurbil" web orrialde berriak.

AGENDA OSATUA

"Gonbidapena luzatu erabiltzaile guztiei bere tresna egin dezaten, lanerako erabil dezaten", deitzen dute Udaletik. Web orrialdea informazio iturri



"Web berrian sartzen denak, modu argian ikusiko du hurrengo egunetan herrian antolatu diren ekitaldiak zeintzuk diren"

Argazkian, Kultura zinegotzia eta herriko hainbat talde, web orriaren aurkezpenean.

gisa baliatu daiteke. Lehen aipatu moduan, zer, non

ta. Kultur arloko deialdiei loturiko albisteak ere irakur daitezke, edota hileroko etxeetan banatzen den kultur agenda kontsultatu.

LAU ATAL

Lau atal nagusi ditu Kultura Usurbil atari berriak. "Agenda" izeneko batetik. Bertan, eguneko egun Usurbilen dagoen eskaintza kontsultatu daiteke eta nahi duenak, deialdiak sa-

re sozialen bidez zabaldu ditzake. "Elkarteak" atalean, ekimenen antolatzaileen inguruko informazioa eskura dugu; harremanetarako bideak, edota kasu bakoitzean, eragile batek antolatuak dituen ekitaldien inguruko zehaztasunak biltzen dira bertan.

Herrian zer dugun gaur, bihar edo etzi, beste modu batean ere ezagutu daiteke, aretoa hain zuzen. Leku bakoitzean dagoen eskaintzaren berri klik batera izango dugu aurrerantz; bai Sutegin, Potoxoenan, Artzabalen, Santueñan, Usurbil, Aginaga edota Zubietako frontoietan, Oiardo Kiroldegian, Mikel Laboa plaza... Kontsultak auzoka edo gunearen arabera ere egin daitezke.

DOKUMENTUAK, ESKURAGARRI

Azkenik, "Deskargak" izeneko atala dugu. Bertan, web orrira igotzen den dokumentazioa eskuratu daiteke; ekimenak antolatzeko eskaera orriak, kultur alorreko plan estrategikoa, hileroko kultur agenda...

Kultur eragileek kudeatuko dute

Erabiltzaile orok eskura dituen atalak dira horiek. Baina honez gain, web orrialde honek badu bere "B" aldea ere. Ere mu pribatua. Web orrialde hau, herriko kultur alorreko eragileek kudeatzeko aukera izango dute. Hau da, herriko elkarte edo talde bakoitzak, Usurbilgo Udalean "alta" emateko eskaera egin dezake. Pasahitz bat jasoko dute, eta pasahitz horrekin, web orrialdean zuzenean parte hartzeko hainbat aukera dituzte. Ekitaldiaren bat antolatzen duen eragileak horren berri eman deza-

ke web orrialdean, taldeek elkarren artean mezuak bidaltzeko aukera ere bada, eta ikuspegi eraikitzaile batetik, antolatzen diren ekimenak baloratzeko modua dute baita eragileek. Hau guztia, esan bezala, web orrialdearen eremu pribatuan egingo da.

Autogestioa bultzatu

Hartara, herriko taldeen autogestioa bultzatu nahi da Usurbil Kultura izeneko leiho berri honen bidez. Eta herriko kultur eragileen arteko komunikazioa eta koordi-

nazioa hobetu eta antolaketa lanak erraztu nahi dira. 2011ko kultur alorreko parte hartze prozesuari esker osatu zen datozen urteotarako plan estrategikoa jasotzen zuen moduan, herriko taldeek zer, noiz eta non antolatzen duten, elkarren berri izan dezaten.

Usurbildarrek nahiz herritik kanpo bizi direnek, hemengo kultur dinamika biziaren berri modu erraz eta erakargarrian izango dute aurrerantz. Kultur herri izaera garrantzen lagundu nahi duen tresna berria martxan da.



tobyngana

english SCHOOL

eman zure izena
orain uda eta
Irailerako!



tel: 686 499 775 (Toby)

email: tobyngana@hotmail.com

- Ingeleseko klaseak
- Elkarrizketa klaseak helduentzat
- Enpresentzat programak neurria
- Azterketen prestakuntza
(Cambridge-ekoak bereziki)
- 8 ikasle gehienez gela bakoitzean
- Bertako irakasleak
- Maila guztiak
- Matrikula dohainik
- 8 urteetatik aurrera
- Internet bidezko tresnak

laister
zabalik

Usurbildarrena, ikurrina dela aldarrikatu dute

Maiatzaren 4ko eguerdiaz geroztik, eta antolatzaile-ek iragarri moduan, "meretzitako lekua du ikurrinak" Usurbilen, udaletxe aurreko plazan. Aurretik, omenaldia egin zioten.

Lehenago, Usurbilgo EH Bilduk herritarrek biltzeko hitzordua jarria zuen Dema plazan. Hainbat usurbildar bertaratu zen Aitzaga atari ondora, aurretik eginiko gonbitari erantzunez, ikurrinak eskutan, edota batzuk soinean bilduta zeramatela. Trikitilariak girotutako kalejirak, Aitzaga ataria udaletxeko plazarekin lotu zuen. Hainbat balkoietan zintzilika-tuak zeuden ikurrinen ondotik egin zuen omeneko kalejirak bere ibilbidea. Kale Nagusira jaitsi ziren lehenbizi, eta handi-ekitaldi nagusia burutu den udaletxe aurreko Joxe Martin Sagardia plaza aldera jo zuten gero. Hitzordua jarria zegoen unerako, 13:00ak alderako jendetza bildua zegoen aipatu plazan. 1977ko San Sebastian bezpera hartan bezala, ikurrinari omenaldia egitera gerturatuak. Orduko une hura presente egon zen, txalapartariak hasiera eman eta Leire Iturriotzek aurkezturiko ekitaldian.

"Usurbilek ez du inposaturiko kolore zein banderarik nahi"

Iturriotzek berak zioen, "egun hartan (1977ko San Sebastian bezperan) itzuli zen gu guztiok ordezkatzeko gaituen ikurra, Usurbilgo Udaletxeko balkoira. Harrez gero 36 urte pasa dira. Egun hartako argazkia errepikatzea ia ezinezkoa bada ere, berriz ere itzuli gara ikurrinari meretzitako lekua duen omenaldia egitera. Izan ere,



Mertxe Aizpurua alkatearekin batera, Agustín Lizaso alkate orde izandakoa eta Andres Bruño, Martín Larrañaga eta Xabier Mikel Errekondo alkate izandakoak batu ziren ikurrinaren aldeko ekitaldian.

aspaldiko garaietara itzuli garesti dirudi. Espainiako Gobernuak Euskal Herriko udalari guztiak Espainiako bandera udaletxe guztietako balkoian jartzera behartzen ditu. Usurbildarrak ordezkatzeko gaituen ikurrak lehentasunezko lekua hartu behar du, indarrez. Harrotza zaigun herri batean. Gauzak honela, gurea den banderari, ikurrinari omenaldia egin nahi diogu, Usurbilek ez duela inposaturiko kolore zein banderarik nahi".

Adierazpenetan soilik ez. Larunbateko ekitaldian, 1977ko San Sebastian bezpera hartan, udaletxeko plazan, ikurrinaren legeztatzea zela eta, ongi etorria emateko Joxe Domingo Aizpurua jarritako bertsoak berriz entzuteko aukera izan zen. Memoria egiterako orduan halere, haratago joan zen aipatu ekitaldia. Urteotan, legegitzaile desberdinetan aldatzen egondako hainbat udal ordezkari ere bildu baitzituen, ikurrinaren aldeko omenaldiak. Andres Bruño, gogor borrokatu ostean, 1977ko San

Sebastian bezpera hartan osoko bilkura deitu, eta udalbatzak aho batez ikurrinaren aldeko mozioa onartu zenean, alkate zena. Martín Larrañaga, Joxe Antonio Altunaren ordezkari Agustín Lizaso, Xabier Mikel Errekondo eta egungo alkatea, Mertxe Aizpurua. Guztien izenean, alkateok adosturiko adierazpena irakurri zuen Aizpurua.

Ikurrinaren zintzilikatzea

Alkateon parte hartzearekin, ikurrinak Usurbilen izan duen 36 urteotako ibilbidea goraiatu nahi izan da. Ekitaldiko une nagusia halere, udaletxeko arkupeetatik, belaunaldi desberdinetako herritarrek ikurrina handia plazara ateratakoan heldu zen.

Auzitegiek aginduta, espainiar bandera jartzera behar dute Usurbilgo Udala. Baina egunotan errepikatu duten moduan, "gurea" zein den argi utzi zuten larunbateko ekitaldian; jada, leku ikusgarri batean zintzilik dagoen ikurrina.

Legedia ez betetzea eskatzen du Hamaikabatek

Espainiar bandera jartzera behar duen "legearen inposizioa" salatu eta "bere erabateko desadostasuna" agertu du Udalak, Bilduk eta Aralarrek aurkeztu eta udalbatzak gehiengo osoz onarturiko mozioaren bidez.

Gehiengo osoz onartu zen mozioa, Bildu, Aralar eta EAJ-PNVren babesarekin. PSE-EE abstentitu zen eta Hamaikabatek mozio honen aurka bozkatu zuen, osoko zuzenketa aurkeztua baitzuen. Luis Mari Ormaetxeak espainiar bandera jartzera behartzen duen legedia ez onartzea eskatzen zuen, orain arte, alkate zein udalbatzarrek aipatu lege hau betearazteko neurririk ez dutela hartu gogoraziz.

Mozioak udalbatzaren gehiengoaren babesa zuenez, osoko zuzenketa ez zen bozkatu. Baina Hamaikabatek aurkezturiko testuaren aurrean, adierazpenik egin zuten gainerako taldeek. Aralarretik, Hamaikabaten osoko zuzenketarekin ados zirela adierazi zuen Joxe Ramon Furundarenak. Baina euren testuan jasotzen zuena ahotan hartuta, "neurririk hartzen ez bada, kalteak izango dira udaletxearentzat" ohartarazi zuen.

Mertxe Aizpurua alkatearen esanetan, "orain arte Udala ez dute behartu lege hau betearaztea". Orain bai, auzitegi bidez. Euskal Herriaren aurkako eraso orokor baten testuinguruan kokatu zuen bandera espainola jartzeko agindua, eta honen aurrean eman beharreko erantzuna ez dagoela udalbatza baten edo bestearen esku, "erantzunak bateratua izan behar du".

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

JOSETXO IKATZETA



Iturgintza

TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Irungo Sarian, lehen postuetan ibili ziren Usurbilgo txirrindulariak

Apirilaren 27an, Irungo Saria jokatu zen eta hantxe izan ziren Usurbilgo Txirrindulari Eskolako gazteak. Alebin eta infantil mailako txirrindulariak, hain zuzen.

1.600 metroko zirkuitua osatu zuten antolatzaileek. Alebin mailakoek hiru itzuli eman behar izan zituzten. Tropelean hasi eta amaitu zen lasterketa eta Asier Pozo izan zen nagusitu zena.

Infantil mailako txirrindulariek aldiz, bederatzit itzuli eman behar izan zituzten. Lehen bi itzulietan lasai samar joan ziren, baina bosgarren itzulian Hernaniko txirrindulari batek ihes egin zuen. Ez zuen ia distantziarik hartu eta zazpigarren itzulian, FullGas taldeko batek ihes egin zuen eta itzuli oso bat bakarrik egin zuen.



Argazkian, Irungo lasterketan parte hartu zuten txirrindulariak.

Baina amaieran, txirrindulari talde txiki batek harrapatu zuen ihes egin-dako FullGaseko kidea. Jarraian, Luken Carbayadak ihes egin zuen eta atzetik Oier Larreak jarraitu zion. Azke-

nean, garaipena Oierrentzat izan zen eta Luken izan zen bigarren. Arratsaldean biribila izan zen, beraz, gure txirrindularientzat. Amador Granadok eman digu informazio honen berri.

Jendetsua, Andatza Eguna



Argazki gehiago: andatzamendizale.info

Udaberri beteko eguraldia, giro jendetsua, sabela pozteko adina jan edana... Giro zoragarria izan zen igandeko Andatza Egunean.

Bertara igotako hainbat herritarren ahotan zen ordea, mendiak zuen itxura berria. Mendi gainera heltzeko bidean zuhaitz piloa bota dute.

Beste hainbeste, orain arte pinudi artean ezkutuan zen borda inguruan ere. Argazkian ikus daitekeen moduan, jendetza ibili zen.

377 gazte, Usurbil Cup txapelketan

Inoizko kopuru handiena antolatzaileen esanetan, 37 talde osatu dira, izena eman duten 377 neska-mutilekin. Hilaren 17tik ekainaren 15era arte, astebururo (zenbait kasutan, baita aste barruan ere) neurketak izango dira. Aurtengo edizioan, berrikuntzak txertatu nahi dituzte antolatzaileek, jokalekuei dagokienean. "Beste urte batzuetan erabilitako zelai batzuk alde batera uztekoan gaude eta berri batzuk probatzeko asmoz", adierazi dute Usurbil FT-tik.

Maiatzaren 14an, bilera

Bilera, maiatzaren 14rako deitu dute, 19:30ean Potxoenean. Bertaratutako ezin dutenek, Usurbil FT-koe-kin harremanetan jartzeko bide hau zabalik dago: futusurbil@yahoo.es

Taldeak, mailaz maila

Minibenjaminak: Opil Goxo, Aizpurua okindegia, Murgil eraikuntzak, Otar Goxo, Artzabal, Urtinea, Inoxvicent.

Benjaminak: Zuri FT, Maite, Goieko "A", Goieko "B", Martxelo garraioak, Zendoia taberna, Josue igeltseritza, Txipiroiak, Txapel-dun taberna.

Alebinak: Ekien ateak, Arantxa akademia, losu serigrafia, Laurok, Kaxkamelak.

Infantilak: Tzelzi, Blai, Etzaikin porta, Sardotegiko gizonak.

Neskak LH 4,5,6: Araeta jate-txea, Saizar sagardotegia, Lurda purtxildetia, Txalaka, Lizardi, Paper-Pop.

Neskak DBH: Ines ileapaindegia, Urdaira, Intza ileapaindegia, Eurre, Pauma.

JE JON ELORZA
IGELTSEKITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

txirriStra
TABERNA



-Plater konbinatuak
 -Ogitartekoak
 -Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Garaipenez jositako hilabetea



Judo taldeko kide batzuk, txapelketa baten amaieran egindako erretratuan.

Azken hilabete honetan Usurbil Judo Klubak izan dituen garaipenen berri eman du taldeak duen blogaren bidez. Laburbilduz, hona hemen judoek eskuratutako domina sortaren berri:

Martxoak 23: Fuengirolako kadete mailako nazioarteko txapelketa. Mongolia nagusi txapelketa honetan. Xabier Cazorlak ez zuen zorte handirik izan.

Apirilak 6: Junior mailako Espainiako txapelketa, Villaviciosa de Odon herrian. Judo Klubeko hiru ordezkariak parte hartu zuten. Bi domina irabazi asmo zituzten, baina azkenean Paula Vicente (-44 kg) eta Xabier Cazorla (-73 kg) bosgarren postuan sailkatu ziren. Haiekin izan zen baita, Naroa Sanchez (-48 kg).

Apirilak 13: Nesken klubaren arteko Liga Nazionala, Madril. Parte hartzaileek podiuma zuten jokoan eta usurbildarrek podiuma lortu dute. Judo taldea kideok osatu zuten: Miriam Gonzalez, Eneritz Agoues, Aiora Arrillaga, Jaione Equisoain, Ane Cazorla, Andrea Arruabarrena, Maialen Zubeldia, Nerea Arruti eta Sara Alvarez.

Apirilak 14: Europako kadete mailako kopa Portugalen. Brontzezko domina irabazi zuen Xabier Cazorlak. Montenegroko jokalariaaren aurka galdu zuen, baina irabazi aldiz, Georgia, Portugal, Italia eta Azerbaijan goordezkarien aurrean. Espainiar estatuan kategoria honetan, domina irabazi zuen judoka bakarra izan zen Usurbilgo Judo taldeko kidea.

Apirilak 21: Kadete mailako Euskadiko txapelketa. Hamaika domina etxerako, txapelketa

honetan. Klubetik burutu duten denboraldi onagatik zorionak helarazi dizkiete jokalariei. Hauxe kadeteen mailako Euskadiko Txapelketan, Usurbil Judo Klubak lorturiko sariak: -44 kg Paula Vicente (Urrea) eta Ainhoa Gonzalez (Zilarra), -48 kg Naroa Sanchez (Zilarra), -52 kg Itsasne Arruabarrena (Brontzea), -60 kg Nestor Laca (Zilarra) eta Jon Rubio (Brontzea), -73 kg Xabier Cazorla (Urrea), -90 kg Mikel Sanz (Zilarra) eta Ugaitz Etxeberria (Brontzea), +90 kg Joxe Arruebarrena (Urrea), Iñigo Garcia (Zilarra).

Apirilak 21: Infantil mailako hautaketa proba. Bost judoka zeuden sailkatuak fase honetarako. A Coruñan ospatuko den finala zuten jokoa. Lehen postua eskuratu zuten, Mafer Carazasek (-44 kg) eta Mikel Formosok (+66 kg), bigarren postua Alba Vicentek (-48 kg) eta hirugarrena Josu Ruizek (-66 kg) eta Julen Alzasek (-46 kg).

Apirilak 27: Senior sektore faseko Espainiako txapelketa. Alcobendasen (Madril) jokatu den finalerako sailkapen proba zen honakoa, Gasteizen ospatu zena. Euskal Federazioko zortzi judoka sailkatu dira aste honetan jokatu den finalerako. Horietatik sei gipuzkoarrak. Hauetako bost Usurbil Judo Klubeko kideak: Andoni Aizpurua, Iker Lizarribar, Aiora Arrillaga, Nerea Arruti eta Egoitz Mora.

Apirilak 28: Benjamin mailako Gipuzkoako txapelketa. Hernanin jokatu ziren txapelketa hauek. Nesken eta mutilen talde banak ordezkatu zuen Usurbil Judo Kluba. Mutilen taldeak lehen bi errondak, 4-1 irabazi zituen, baina ez zen finalurreko saioetarako sailkatu. Neskena bai ordea. Finalerdietara iritsi zen. Baina 3-2 galdu zuten, hirugarren postua eskuratu.

Gipuzkoako eskubalo txapelketako amaiera fasea, Oiardon

Hainbat eskaera jaso ostean, Gipuzkoako Eskubalo Federazioak Usurbil Kirol Elkarteara onartu du, eta ondorioz, Gipuzkoako eskubalo txapelketako finalerdi eta finalak Oiardo Kiroldegian jokatu dira. Finalerdiak asteburu honetan, finalak astebate barru. Usurbil Kirol Elkartetik berri eman dutenez, "Kirol Elkartek honetako bi talde, infantil mutilen Mikel Alzagak eta Jon Aizpuruak entrenatzen duten Udarregi Usurbil taldea, eta infantil nesken Julen Ulik entrenatzen duen Udarregi C Usurbil taldea, GIPUZKOAKO TXAPELKETA hauetako semifinal hauetarako talde sailkatuen artean aurkitzen dira". Infantil mutilak euren multzoko lehen postuan dira eta, "beste multzoko bigarrenaren aurka, Bidasoaren aurka, jokatu dute". Infantil nesken taldea ere euren multzoko sailkapen buruan dira eta Bera-Bera taldekoekin lehiatu beharko dute.

Maiatzak 11 larunbata, Oiardon Gipuzkoako Txapelketako Finalerdia

9:30 Infantil neska
Udarregi C Usurbil - Bera Bera Egia Bi

10:40 Infantil neska
Aiala A - Murgil Elgoibar

11:50 Infantil mutilak
Melfun Eibar Eskubaloia - Bankoa Elgoibar

13:00 Infantil mutilak
Udarregi Usurbil - Bidasoa A

18:00 Kadete mutilak
Usurbil K.E. - C.D.B. Leizaran

Maiatzak 12, igandea, Oiardon

11:30 Kadete neska
Gipuzkoako selekzioaren kontzentrazioa.

Selekzioarekin

Maiatzak 12, igandea

9:30-11:30 Infantil nesken taldea
Oñatiko Zubikoa Kiroldegian, Josebe Blazquez.

10:00-12:00 Infantil mutilen taldea
Bidebietako kiroldegian, Eneko Iribar.

Futbol partidak Haranen

Maiatzak 11, larunbata

10:00-12:30 Benjaminen topaketa.
15:30 Regionalak.

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000e. 617 972 350.

Atiko batsalgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxebizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioaxako Fuenmayor herriko kanpinean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxebat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxia. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkioekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 200.000 (negoziagarriak). 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ede-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaia.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

rrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta igogailuarekin. 943371495 - 695767821-657711335

Gela bat alokatzen da dena berritua kaxkoan, gizaseme langile jubilatu bati. Etxe lasaia. Atzeritarrik ez. Tel. 687 348 223.

Pisua alokatzen da kaxkoan. 3 gela, 2 komun, sukaldea, egongela, trasteroa, garajea eta igogailuarekin. Tel. 656 783 228.

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berri batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratztea egiteko aukera. 665 720 913.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekinetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

MOTORRA

salmenta,
garajeak

Seat Ibiza 1.4Tdi 80zaldi. 58.500km. 2009 urte amaierakoa, 5 ate, txuria. Jabe bakarra, ez erretzailea eta beti garajea.

Volkswagen Multivan 2.5 TDI 130cv salgai. 2006koa, 151.000km, gris iluna. 650919065.

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrenean 10ean. Tel. 620 024 663.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta

kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

Garajea salgai Txaramuntan. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakas-kuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zaindiko nituzke goizein arratsaldean. Irakas-kuntza diplomatua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatria eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordu-tan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalanera-ko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsaldean, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildun euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardinertza lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzetan laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.



Zorionak Nora!

Maiatzaren 11n gure etxeko printzesak 6 urte beteko ditu. Ondo pasa eta muxu handi bat.

Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaia.com

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, internan moduan 673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsalde edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko, klase partikularak emateko. Esperientzia. 652712099.

Lan eskaintzak

Emakume euskalduna eta usurbildarra behar dugu astelehenetik ostiralera, 12:30-14:00

artean eta astelehen eta asteazkenetan, 16:30-18:00 artean, bi haur zaintzeko irailetik aurrera. Gabonetan, Aste Santutan, uztailean eta abuztuan izan ezik. 635 755 666

Usurbil aldean komertzialak behar dira. Seriotasuna eta baldintza onak. 943 440 487.

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. Telefono zenbakia: 9433743 30

Zerbitzari bat behar dugu Xarma tabernan. 943 368 771

BESTELAKOAK

Frantsesezko klaseak hartuko nituzke. 666 607 447

Erromeri talde baterako, tronpeteta eta tronboi jole bila gabiltza udan honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Etxean egindako haur manta bat galdu dugu, koadroduna, morea, grisa, horia eta naranjako kolorekoa. Aurkitzen baduzu: 626 368 019

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713

204 edo djarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

Mendiko jertse gorri bat galdu nuen Andatzen. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko nioke, Udaltzaingoa utziz edo deitu: 667 830 484.

Hiru metroko sofa salgai, "txeslorarekin". 400 euro (negozia-garriak). Berri berria. 653 711 574.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600 244 126

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Gasze usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko pala txiki bat galdu genuen herriko frontoian... 639 469 577.

Maxi-Cosi CabrioFix eserlekua salgai gehi kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haur jokoak, liburuak, kirol materiala, ispiuak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epategia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Egunezko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkartea	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak maiatzak 9-maiatzak 19

Osteguna	9	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Ostirala	10	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Larunbata	11	GANDARIAS-URIBE Iñigo de Loyola	9 Lasarte
Igandea	12	GANDARIAS-URIBE Iñigo de Loyola	9 Lasarte
Astelehena	13	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Asteartea	14	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Asteazkena	15	GANDARIAS-URIBE Iñigo de Loyola	9 Lasarte

Osteguna	16	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
Ostirala	17	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Larunbata	18	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Igandea	19	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8
(Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak
943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725


ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Agenda maiatza

10 ostirala

■ **Mundumob entsegua.** 19:00etan frontoian.

11 larunbata

■ **Ate irekien eguna, Lanbide Eskolan.** 11:00.

■ **Mundumob grabazioa.** 18:00, frontoian.

■ **'Hil arte bizi' antzezlan.** 22:00etan Sutegin.
8 euro aurretik Lizardin, 10 euro leihatilan.

12 igandea

■ **Arantzazura erromesaldia.** 8:30ean abiatuko dira Aginagatik (Parrokiako lokaletan eman behar zen aurretik izena).

'Hil arte bizi', maitasunaz eta heriotzaz mintzo den antzezlan

Hil arte bizi heriotzaz hitz egiten duen komedia da, eta adiskidetasunaz mintzo den tragedia. "Bizitzeko gogoaz ari den tragikomedia da", esan izan den moduan. Javier Veigak idatzitako obran oinarritu zen Begoña Bilbao zuzendaria. Telebistan zein antzerki munduan trebatutako aktoreak dira ohol-tza gainera igoko direnak: Iker Galartza, Sara Cozar eta Joseba Usabiaga.

Ikusleari galdera hauen aurrean ipini nahi zaio: Zer egingo zenuke zure bikoteak zure lagun onenarekin alde egingo balu? Biei barkatuko zenieke? Eta heriotza tartean bada... dena ezberdin ikusten da? Edozer barkatuko zenuke maitasunagatik? Eta adiskidetasunagatik?



Iker Galartza eta Sara Cozar aktoreak.

Maiatzak 11 larunbata

■ **22:00** Sutegin. Sarrera aldeztu aurretik 8 eurotan Lizardin, egunean bertan 10 eurotan, leihatilan. Antolatzailea: Jexux Arte Kultur Elkarte.

Zubietako Txokoak

Txokoak 3 urtetik (2010 urtean jaiotakoak) 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude. Uztailan eta abuztuan Eskola Txikitan elkartzeko dira, honako ordutegian: 9:30-13:30.

Izen emate orriak ikastolan eta Barazar Tabernan eskuratu daitezke eta Udaletxeko buzoian bota behar dira (Alamandegin). Izena emateko azken eguna maiatzaren 20a izango da. Edozein zalantza izanez gero deitu: Izaskun: 618 700 479 Josune: 636 719 301.

San Ixidro Eguna

San Ixidro Eguna ospatu ohi da maiatzaren 15ean. Asteazkenarekin tokatu da aurten. Hau xe da udaletxeak egokitu duen egitaraua:

■ **10:30** Meza Salvatore Elizan.

■ Meza eta gero, hamaiketako eta herri kirolak frontoian.

■ **14:30** Bazkaria Artzabalen. Txartelak Alkartasuna Kooperatibaren salgai, maiatzaren 11ra arte.

■ **18:30** Herriko erraldoi konpartsarekin pintxo poteoa.

Datozenak

Palestinari buruzko hitzaldia Potxoenean

1948ko maiatzaren 15ean, britainiarrek Palestinan zuten agintari uko egin eta Nazio Batuen Erakundearen esku utzi zuten. Egun berean Israel bere independentzia alde bakarrez aldarrikatu eta Nakbari hasiera eman zion: 13.000 palestinar hildako, 750.000 erbesteratu, eta 400 herri inguru birrindu zituzten.

Al Nakbaren (hondamendia arabieraz) 65. urtemuga betetzen da aurten. Ordukoa eta egungo egoera gogora ekarri asmoz, hitzaldia antolatu du Palestinaren Aldeko Taldeak. Jesus Artetxe eskainiko du hitzaldia datorren astelehenean, maiatzak 13, arratsaldeko 19:00etan Potxoenean.



1948an eman zen Al Nakba izeneko sarraskia (hondamendia, arabieraz).



Edertu zaituz!

Loli Lizarralde

ESTILISTA



ESTETIKA TARIFAK

- Aurpegi garbiketa 30€
- Manikura 9€
- Pedikura 15€
- Bekainak edo bibotea 4€
- Besapeak edo ingreak 5€
- Hanka osoak 15€
- Hanka erdiak 12€

***EZ DUGU BEZ-A (IVA) IGO!**

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971

INDIBA
DEEP BEAUTY
PROFONIC BODY CARE SYSTEM

DESKONTU BEREZIAK

ZELULEN BIRSORTZEA • LIPOLISISA • MODELAKETA • ERREAFIRMAZIOA
• AZALAREN TONIFIKAZIOA • OXIGENAZIOA • HIDRATAZIOA • LIFTING

✓ ZELULITISAREN GUTXIAGOTZEA ✓ AURPEGIA GAZTETZEA ✓ ZIMURREN LEUNKETA
✓ BULARRAREN ERREAFIRMAZIOA ✓ SILUETAREN HOBETUNTZA ✓ AZALAREN INDARTZEA

Enar
ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK: PRESOTERAPIA TERMOLINEA ELEKTRIKO/ULTRA • KAKUNTERAPIA
munalurra 2, USURBIL 943 571680



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal
JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA

artzabal baserria 626603600

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Egverditan irekia!
Nagusia 8, Usurbil 943 36 36 41

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN
ESTILISMOA ETA ESTETIKA
LANTZEN DITUGU

ESTETIKA ESKAINTZAK

Gorputz espalazioa eta masajea edo Aurpegiko garbiketa osoa edo Manikura eta pedikura osoa:
30€-tan (jubilatuentzat 22€)

IKASLE EDO 18 < GAZTEENTZAT, DEPILAZIOAN:
Ingreak + besapeak: **10€** • Bekainak eta bibotea: **7€**
Hanka osoak: **18€** • Hanka erdiak: **10€**

Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12. © 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

m
mistoa

Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, © 943 361 951

MUNDU**m**

Eman hartu nahi duzun mundua

ENTSEGUA: Maiatzaren 1 Oean frontoian 7etan

Maiatzak 11, Dema Plazan

17:00-18:00: entsegua

18:00: GRABAKETA

ondoren:

- Zizka mizkak - DJ
- Mundo bolarekin argazkia ateratzeko aukera



USURBIL Maiatzak 11



ZERO ZABOZ

DONOSTIA Ekainak 8